

Ebaluazio berezia

Helburua

Epaimahai Bereziak egoteak ikasle bati lortu nahi duen titulua lortzea eragozten dioten egoera akademiko berezi batzuei erantzun nahi die, kreditu batzuen faltan dagoelako edo irakasgairen bat gainditu ez duelako.

Epaimahaiok erabakiko dute ikasleak, oro harturik, eskuratu nahi duen titulazioa lortzeko beste merezimendurik duen.

Ebaluazio berezia eskatzeko betebeharrak

Ebaluazio berezia eskatzen dutenek eskabideari dagokion ikasturtean **egin behar izan dute matrikula**, eta matrikula horrek eskubidea ematen dien bi deialdietako edozein erabili ahal izango dute: irailean eta martxoan.

Ebaluazio berezia eskatu ahal izango da, egokitzat jotzen diren alegazioekin arrazoituta, betiere dagokion irakasgaiaren deialdiak agortu ez badira.

Gehienez ere, titulazioaren kreditu guztien % 6ko balioa duten irakasgaien ebaluazio berezia eskatu ahal izango da, betiere titulazioan konpentsa daitezkeen kredituen % 90 gainditu bada.

Eskatzaileak, aurretik, gutxienez 3 deialditan aurkeztuko zen ebaluazio berezia eskatzen duen irakasgaietan, eta horietako batean lortutako kalifikazioa gutxienez 3 puntukoa izango beharko du.

Inola ere ezingo da eskatu gradu amaierako lanaren ebaluazio berezia.

Ebaluazio Bereziaren irizpideak

Ikastegiko Konpentsazio Epaimahaiak **aldeko erabakia** emango die baldintza hauek betetzen dituzten eskaerei:

- 1. Eskatzailea irakasgaiaren gutxienez 4 deialditara aurkeztu izana.**
- 2. Deialdiren batean gutxienez 4ko kalifikazioa lortu izana.**
- 3. GRALa salbu, titulazioa amaitzeko geratzen zaion azken irakasgaia izatea, Gradu Amaierako Lana kenduta.**

Gainontzeko kasuetan, non ebaluazio berezia eskatzeko baldintzak bete bai baina aurreko paragrafoan adierazi eta ebaluazio bereziaren bidez gainditzea

eragiten duten baldintzak biltzen ez diren, ikastegiko epaimahai bereziak honako baldintza hauek baliatuko ditu:

- ▶ [Ikastegiko Batzorde Akademikoak onartutako irizpideak](#), unean uneko ikasturterako matrikula aldia baino lehen argitaratu direnak.
- ▶ Irakasgaiaren ardura duen sailaren txosten arrazoitua.
- ▶ Ikaslearen espediente osoa.
- ▶ Ikaslearen alegazioak, bere ustez irakasgaia ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko kontuan hartu behar diren alderdiak nabarmenduz eta arrazoituz aurkeztu ahal izango dituenak.
- ▶ Ikaslearen alegazioak, bidekotzat jotzen dituen inguruabarretan oinarrituta aurkeztu eta justifikatu ahal izango du eskaera, bere ustez ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko kontuan hartu beharko lirartekeenak.

Epeak

Ikasleek ebaluazio berezia eskatu ahal izango dute irailean eta martxoan, 1etik 5era.

Eskaerak aurkezteko tokia

[Letren Fakultateko idazkaritza.](#)

[Eskaera inprimakia](#)

GRADUKO TITULAZIO OFIZIALETAKO IKASLEEN EBALUAZIORAKO ARAUTEGIA

III. KAPITULUA

EBALUAZIO BEREZIA

[29. artikulutik aurrera](#)